253. zk.
Bigarren aroa
Maiatzak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Kirola
Sky Games
Aiako Harrian

9. orrialdea

Erreportajea
Krea Bidasoaren 7. edizioa arrakastatsua izan da

3. orrialdea

KULTO KULTIBO
rap taldearen gorakada

4- 5 Hauteskundeak: Irungo hautagaien proposamenak
6 Elkarrizketa Jon Oliden .eus-en sustatzailea
7 Erreportajea Artefaktoko ekimen berria
8 Kirolak Bidasoa Itzuliaren inguruko erreportajea
11 Gurasoentzat Jeloskor nago! Inbidia dut!
12 Gazteen lanak El Pilar Ikastetxea
14 Gazte infor

PLAIAUNDI INSTITUTUA

BATXILERGOAK
- Natur eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientzietakoa

ATE IREKIETAKO JARDUNALDIA:
2015EKO MAIATZAREN 20AN
ERDI MAILAKO ZIKLOA: 18:00.
GOI MAILAKOA: 19:00.

LANBIDE HEZIKETA
Goi Mailako Heziketa Zikloak
- Haur Hezkuntza
- Administrazioa eta Finantzak.
- Dietetika eta Elikadura.
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa.
- Garraioa eta Logistika.
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena.
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena.

LANBIDE HEZIKETA
Erdi Mailako Heziketa Zikloak
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Administrazio kudeaketa
- Mikroinformatika-sistema eta Sareak

Eskaintza partziala eta etengabeko formakuntza.
FORMAKUNTZA DUALA

HELBIDEA: Plaiaundi z/g. IRUN
9:00-13:00 eta 16:00-18:00
INFORMAZIOA:
943 61 75 47 / 943 61 75 48

www.plaiaundi.hezkuntza.net
plaiaundi@plaiaundi.net

Ohorezko matrikula absurdoa

Yurre Ugarte

Arropak tolesten dituen bitartean, Inditex taldeko denda batean lanean, soziologian graduatu zen Sara pentsatzen ari da zertarako balio dion unibertsitatean eskuratu zuen ohorezko matrikulak ... Arropak tolesten dituen bitartean gogoan du, GKE baten baitan Camerungo umezurztegi batean igarotako urtea... Arropak apalategietan tolesgabe tolesten dituen bitartean, irudikatzen ditu Sara bera bezalako milaka neska (emakume, mutil, gizon...) unibertsitatetik irten berriak, antzeko arropa tolestu eta tolestu dabiltzala, Sararen antzeko milaka emakumeek eros ditzaten, jantzi ditzaten... Hain justu, Sara bezalakoak diren milaka neskek eginiko arropak dira horiexek, Sara baino askoz gutxiago kobratzen dutenak ordu gehiago lanean egonagatik ere... Milaka Sara lanean, Pakistanen, Indian, Morokon, Turkian, Cuencan, Arteixon, Gasteizen edota Irunen, batek daki non ez dagoen Sara bat Inditex enpresetan lanean, edo erosten... Gainera, Sarak arropa merkeak erosten ditu soldata eskasa duelako. Eta arropa merke horiek erosten dituen bakoitzean, Pakistango Sararen prekarietatea sustatzen du. Egia da, Sarak asko lan egiten du bizitzeko dirua behar delako; izan ere, Irungo Sara Pakistango Sararen ondoan aberatsa baita.

Aurreko esaldi horietan norbaitek ez badu ezer ulertzen, ez da harritzekoa. Egungo ekomomiaren absurdoaz ari baikara.(Arroparen ordez beste kontsumo ondasun bat izan liteke). Josep Burgaya Kataluniako UAB unibertsitateko irakasleak deitzen dio absurdoaren ekonomia. Gaztelaniazko itzulpena argitaratu berri du, La economía del absurdo. *Cuando comprar más barato contribuye a perder el trabajo* (Ediciones Deusto,2015-Absurdoaren ekonomia. Merkeago erosteak lana galtzea dakarrenekoa). Egungo ekonomiaren absurdoa, absurdoaren ekonomia. Guk geuk kontsumitzaileok areagotzen duguna zenbat eta merkeago erosten dugunean, langabezia eta prekarietate handiagoa sustatzen delako… Ekonomia gutxi batzuen mesedetara dago eta ez gure mesedetara, gu guztion artean prekarietatea orokortzen eta betikotzen ari da. Eta gutxi horiek gero eta gutxiago dira.

Hauteskunde kanpainaren erdian gauden honetan, Sarak, arropak tolesten dituelarik, galdegiten dio bere buruari zein alderdi politikok jarraitzen duen absurdoaren amildegia sakontzen, zein alderdi politiko ausartuko den absurdoaren eromenetik pauso bat urruntzen.

Irun atzo Irun gaur

Mendibilgo zezen plaza

IUA: 29162

Arg: J.M. Castillo

XIX. eta XX. mendeetan zezenketak San Pedro eta San Martzial jaietako ekintzarik nagusienetako bat ziren. Irun zezenketarako zazpi leku izatera ere iritsi zen; horietako bat, finkoa: Mendibilgo plaza, 1910eko ekainaren 29an inauguratu zena. Gertakari handia izan zen, *jai nazionalaren* aurka zeudenek nolabaiteko polemika piztu arren.

Larretxipi kaleko Agerre sagardotegiko zale talde bati eraikuntza bultzatzea otu zitzaion, urte eta erdi lehenago. Baimenak eta finantzazioa lortuta, lanek lau hilabete baizik ez zuten eman, aurrekontua 225.000 pezetakoa izaki.

Dimentsio handiko proiektua diseinatu zen, kontuan izanda 8.000tik gora ikuslerentzako plaza zela eta Irunen 12.000 biztanle besterik ez zirela.

Jarduera honek garai hartan gure hirian zuen garrantziaz ohartzeko, hona datu bat: urtean sei zezenketa ere burutzen ziren. Mendibilgo plazan garaiko zezentzailerik ospetsuenek ikuskizunak eskaini zituzten.

1920. urtean plaza eraitsi zen eta bertan Salvador Echeandia Galek Villa Maria Luisa eraiki zuen, gaur egun Musika Kontserbatorioren egoitza dena.

Iturria: Sagrario Arrizabalaga.
Festejos de toros en Irun, siglos XVI-XX

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Ekintzaileak, enpresariak eta erakundeak bildu ditu Krea Bidasoak

Gizateriaren historian funtsezko asmakizuna izan da gurpila. Aurten, Bidasoko ekintzaileak eta enpresari berritzaileak bildu dituen Krea Bidasoa topaketaren irudi izan da. Gurpilak bezala, helmugak gainditzeko aurrera egiten ari dira. Bide horretan, tresna eta baliabide erabilgarriak eskaini dizkie Bidasoa Bizirik-ek, Krea Bidasoa topaketan. "Berrituz aurrera" izan da aurtengo leloa.

Jarduera asko antolatu zituzten Krea Bidasaoak 2015ean

Zazpigarren aldiz antolatu du Bidasoa Bizirik Garapen Agentziak Krea Bidasoa azoka. Eskualdeko ekintzaile eta artista gazteak, enpresari beteranoak eta erakundeak elkartu ditu, helburu zehatzekin: kontaktuak egitea, negozio aukerak identifikatzea, beste esperientziak eta arrakasta kasuak ezagutzea eta nazioartera zabaltzea. Frantziar estatuko enpresariak ere izan baitira Ficoba Erakustazokan. Maiatzaren 7an izan da topaketa, 9:00etatik 20:00etara. "Talentua eta ilusioa duen gazte asko dago eskualdean. Horiei laguntza eman behar diegu, proiektuak bertan gara ditzaten", adierazi du José Antonio Santano Irungo alkateak.

Tailerren eta jardueren agenda betea prestatu du Bidasoa Bizirik-ek. Bost gune ezberdinetan banatu du erakustazoka: *Kontractando*, *Kreando*, *Produciendo*, *Kolaborando* eta *Deskonektando*. *Ezagutu bezeroa enpatiaren mapari esker* tailerra gidatu du Irene Martínezek: "Enpatiaren mapa merkatu segmentuak baloratzeko tresna da. Hogeita hamar parte-hartzaile inguru izan dira tailerrean. Oso talde heterogeneoa: ikasleak, hasiberriak diren ekintzaileak eta esperientzia duten enpresariak". Tailerrekin eta hitzaldiekin ikasteko aukera izan da, beraz.

Kontaktuak egiteko aukera

Elkar ezagutzeko aukera ere bada Krearen balio handienetariko bat. "Aukera polita da, guretzat zaila delako enpresa askorekin harremanetan jartzea. Horrelako ekimenetan kontaktu asko egin daitezke", azaldu du Jon Garmendiak. All4Móvil enpresa martxan jarri du, duela urte eta erdi: "Asesoria bat sortu dugu telefonia mundurako. Energiarekin, aseguruekin edo bankuekin egiten duten bezala. Jende asko galduta ibiltzen da telefoniaren arloan, ez daki zer daukan kontratatuta, eta zer den berarentzako hoberena. Guk zerbitzu hori egiten dugu".

> "Ideien elkartrukea egoten da, eta proiektuak ere sortu izan dira"
> **Josu García** (Pulimentos Metálicos Txingudi)

Ekintzaile gazteek enpresari beteranoen aholkuak jaso ahal izan dituzte. Pulimentos Metálicos Txingudin urteak daramatza Josu Garcíak: "Inguruan daukaguna ezagutzeko ondo dago azoka. Ezagutzen ez ditugun enpresa asko daude. Ideien elkartrukea egoten da, eta proiektuak ere sortu izan dira". Proiektu berritzaileak ezagutzeko aukera izan da, hain zuzen ere, Krea Bidasoaren amaieran. PechaKucha formatu erakargarrian egin dituzte aurkezpenak, 20 irudirekin, eta hogei segundo erabilita irudi bakoitzeko. Berrikuntzarekin hasi eta amaitu da Krea Bidasoa. Gurpila ez da gelditu.

Kirolaren Foro Profesionala egin dute

Irun Sasoian ekimena izan da Krea Bidasoa azokaren berritasun nagusietako bat. Kirol Foro Profesionala antolatu dute, kirol munduarekin harremana duten erakundeei eta norbanakoei zuzendua. CD Bidasoa eskubaloi elkartearen izenean Aritz Sodupe aritu da: "Gure klubean urte asko daramatzagu ekimen berritzaileak sortzen, mugikortasun planarekin, euskara planarekin, edo entrenatzaileen formakuntzarekin. Beste klubekin hitz egiteko eta iritziak trukatzeko etorri gara". Eskualdeko beste hainbat kirol elkarte, kirolari eta kirolari ohi izan dira Foroan: Real Union, Santiagotarrak, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea eta Juanma Garate, besteak beste.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Udal hauteskundeak

SI SE PUEDE (David Soto)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Hiritarren parte-hartzeari dagokionez, Udal Lege ekimena ezartzeko asmoa dugu, 1.000 sinadura baino gehiago dituzten proposamenak plenoan aztertuko direla bermatzeko. Gai sakonetarako, aldiz, kontsultak egitea proposatzen dugu; esate baterako, azpiegituretarako inbertsioetan, edo proiektu urbanistiko handietan. Elkarteak indartu eta kultur eta kirol arloko kooperatibismoa sustatu nahi ditugu.

Enpleguaren eta garapen ekonomikoaren gaian, Udaletik merkataritza txikia eta ertaina biziberritu eta sustatu daitekeela uste dugu. Jarduera komertzial propioa duen hiria nahi dugu. Bidasoko produktuen kalitate zigilu bat sortzea aztertuko dugu. Komertzio berriak irekitzeko, alokairuan laguntza zuzena proposatzen dugu, eta Ficoba moduko espazioen doako erabilera, tokiko merkatuen eta azoken promoziorako. Kooperatibak eta lan sozietateak sortzea babesten dugu.

Gizarte ongizateari dagokionez, Irunvi gizarte esku-hartzerako eragile bilakatzea proposatzen dugu, desjabetzeak ekiditeko. Familia kaltetuenei laguntzeko politika garatuko dugu.

IRABAZI (Proko Gómez)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Hiritarrekin egindako kontratua proposatzen du Irabazi Irunek. Gardentasuna eta parte-hartzea izango dira gakoak, justizia soziala eta iraunkortasuna ekarriko dituen aldaketa lortzeko. Konpromisoak, neurri zehatzak, adierazleak eta kontuen etekina irudikatzen dituen programa daukagu.

Udaletik Irun hiria eraldatzeko lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, hiritar aktibo eta konprometituen alde. Gizarte justuagoa, solidarioa eta iraunkorra ekarriko dituen eraldatzea bilatzen dugu. Eskubideen berdintasun erreala nahi dugu, justizia soziala bermatuko duena, gastu sozialean inbertsio handiagoa egingo duena, eta beharrezkoak ez diren inbertsioak egingo ez dituena. Gizakien eta animalien eskubideak babestuko dituena, ingurumenarekiko errespetuzkoa, eta sortzen duen aberastasunaren banaketa bidezkoa egingo duena. Familiak desjabetzen ez dituen gizartea, etxebizitzaren eskubidea eta lan duinarena bermatuko dituena, eraldatzean emakumeak jokatzen duen funtsezko papera onartzen duena. Denok batera Irun eraldatuko dugu.

CIUDADANOS (Javier Álvarez)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Produktibitaterako eta enplegurako plan integrala sortuko dugu, Gipuzkoako langabezia tasa altuena berehala jaisteko. Udal lan-poltsa sortzeko apustua egingo dugu, obra publiko guztietan klausulak ezarrita, eskualdeko langabeen kontratazioa lehenesteko.

Denon dirua sen onarekin gastatuko duen hiria nahi dugu, Irun estatu osoan gehien zorpetutako hirien artean egotera eraman duten obra faraonikoak alde batera utzita. “Erosketetako turismoa” sustatuko duten kanpo kanpainak egingo ditugu, aparkaleku bonifikatua eskainiz. Auzoen biziberritzearen eta komertzio historikoaren babeserako ordenantza baten alde egingo dugu.

Gizarte politikak sustatuko dituen hiria nahi dugu, baztertze soziala ekidinez. Oztopo arkitektonikoak ezabatuko ditugu, aniztasun funtzionala duten pertsonek espazio guztietara sarbidea izan dezaten. Pertsonek proposatu, eztabaidatu eta erabaki ahal izango duten hiria egingo dugu. Prozesu parte-hartzaileak sustatuko ditugu Plan Orokorrerako, edo udal aurrekontuaren %5a gainditzen duten obretarako.

UPyD (Raúl Vázquez)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
UPyDk hiritik alde egin duten enpresak erakarri nahi ditu, enplegua sor dezaten. Hiri dinamikoa eta industriala da gure apustua. Funtzionatuko duen hiria, gastua ez baina hiritarrentzako diru-sarrerak sortuko dituena.

Gizartearen arloan, adinekoak eta beharra duten pertsonak babestearen alde egiten dugu. Mendekotasunaren udal legea izango da helburu nagusi, irundarren enpleguarekin batera. Hezkuntza pedagogiko duinaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonen arteko errespetua izango da lehentasuna.

Auzo guztietara zabaldutako hiri segurtasunaren aldeko apustua egiten dugu. Drogen kontrako planak eta eskoletako atarietakoak beharrezkoak dira naturarekin eta bizilagunen ongizatearekin errespetuzkoa izango den gizartearen funtzionamendu egokirako.

Bizilagunei ahotsa ematearen alde egiten dugu, bizilagunen presidenteen bidez. Gertakariaren berri ematen den momentutik, arazoak 48 orduko epean konpontzea da gure ideia. Irun irundarrei bueltatzeko apustua egiten dugu. Herriko etxea irundarrena da, ez talde politikoena.

2015

PSE - EE (José Antonio Santano)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Irun izango da protagonista bakarra maiatzaren 24ean. Zailtasunak gainditua, aurrera egin ahal izan du hiriak azken urteotan. Hobetzen jarraitu du Irunek, eta bilakaera horrek etenik ez izatea nahi genuke. Hitzak ondo daude, baina ekintzak behar ditugu. Promesez gainera, erantzukizuna eta kudeatzeko gaitasuna behar dira. Hiri proiektu bat aurrera eramaten ari garela ulertzea. Ondo jakitea nondik gatozen, eta nora joan nahi dugun.

Bizitzeko eta lan egiteko Irun nahi dugu. Denontzako aukera profesional berrien eta hobeen bila aurrera egiten duen hiria. Laguntza behar duenarekin eta gaizki pasatzen ari denarekin izan duen konpromisoa berretsi behar du Irunek. Hiria denona da, denontzat da, eta bere ondareaz, historiaz eta ohiturez harro dago.

Azken urteotan lan handia egin dugu auzoz auzo. Mundu guztiak izan du bere tokia, eta iritzia. Ekimen horrekin jarraitu nahi dugu, beharrezko esperientzia eta ideiak baditugulako. Bizitzeko liluratzen gaituen hiria da Irun, eta hala izaten jarrai dezan lan egiten segitu nahi dugu.

EAJ - PNV (Xabier Iridoy)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Datorren agintaldirako hiru ardatz nagusitan oinarritutako egitasmo sendoa prestatu dugu: ekonomiaren eta enpleguaren suspertzea, irundarren bizi kalitatearen eta ongizatearen hobekuntza, eta mugikortasuna. Erronka handiak ditugu Irunek aurrera egin dezan, eta erronka horiek hamar konpromiso nagusitan laburtu ditugu.

Hiriko mugikortasuna hobetu eta aparkalekuen arazoari irtenbidea emango diogu; auzoetako bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko hainbat esku-hartze aurrera eramango ditugu; Txingudi badiako hiru hiriak bidegorriz lotzeko proiektuari bultzada emango diogu; Irungo enpresen lehiakortasuna eta nazioartera zabaltzea sustatuko ditugu; tokiko merkataritza eta ostalaritza indartuko ditugu; Meaka auzoan aterpetxea eraikiko dugu; gobernu onean, gardentasunean eta gertutasunean oinarritutako kudeaketa egingo dugu; hiri-segurtasunean eta puntu beltzen deuseztapenean aurrerapausoak emango ditugu; euskararen kaleko erabilera sustatuko dugu; eta alokairuaren aldeko apustua egingo dugu, etxebizitza beharrei aurre egiteko.

EH - BILDU (Oinatz Mitxelena)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Irunek haize freskoa behar du. Irundarrak nazkaturik gaude hamarkada luzeetan Irun gobernatzen egon diren alderdiek garatutako politikaz. Politika beste era batera egiteko eskaera egin dute herritarrek eta EH Bildu da horren bermatzaile bakarra. Ezagutzen dugunaren aurrean alternatiba erreal bakarra gara!

Oinarritik aldatuko dugu politika egiteko moldea, herritarrei boterea itzuli nahi diegu, demokrazia zuzenaren bidean. Horretarako, parte-hartze ordenantza bat abian jarriko dugu, herritar ororekin osatuko duguna.

Gure helburua herritarrak burujabe izatea da. Erabakiak hartzeko burujabe, elikaduran burujabe... Guzti hau berritzailea da eta ez du beste inork planteatzen, bizi garen ereduarekin apurtu beharra daukagu!

Herritar guztiek, erlijio, jatorri, genero edo klase sozialen gainetik, oinarrizko eskubide eta beharrak asebeteak eduki behar dituzte. Salbuespen egoera batean bizi gara, asistentzialismo hutsa alde batera utzi eta arazoaren muinari erantzuten dion gizarte politikak eramango ditugu aurrera.

PP (Juana Bengoechea)

Zer irabaziko luke Irunek zure partidua irabazita?
Datozen lau urteetan honako proiektu hauek behingoz bukatzea izango da gure lehentasuna: Plaiaundiko kirol instalazioen kokapen berria eta San Migel Anaka eta Iparralde Gal eremuetako urbanizazio berriak. Bestetik, Irun kultur hiria sustatu eta Unibertsitatearen indarra areagotuko dugu.

Garrantzi handia izango du, baita ere, hiritarren parte-hartzeak. Guk defendatzen dugun eredua ez da asanblearioa. Izan ere, ikusi dugunez, jende gutxi joaten da haietara, eta legitimitate gutxi dauka horrek. Horregatik, parte-hartze eredu zehatzagoa proposatzen dugu. Ekiten zaion edozein proiekturen aurrean, zuzenean eragiten dienei galdetuko diegu.

Enplegua sustatzeko, lehenengo, daukaguna finkatu beharra dago. Horretarako, formazioa eta aholkularitza proposatzen ditugu. Bestetik, lehen sektoreari garrantzi handia eman behar zaiola uste dugu. Irunen %60 baino gehiago natura da, eta hori era iraunkor batean ustiatu behar da. Adibidez, arrisku-kirolak Irunen egin ahal izateko instalazioak eraikiz, turismo ugari erakarriko dugu

BAKAILAOA DASTA EZAZU

la bacaladera
bacalaos SANTYMAR
RJ BACALAO
la barajilla bacoreo
Egullor

Jon Oliden:

“Euskararen komunitatearen identitatea ematen du .eus domeinuak”

PuntuEUS Fundazioak domeinuaren aurkezpena egin zuen martxoaren 10ean Irunen. Bidasoa Bizirik erakundearen Enpresen Zentroan izan zen, Larreandi auzoan. Handik hurbil bizi da gaur egun Jon Oliden zumaiarra, Fundazioko marketing eta komunikazio arduraduna. Berak azaldu zituen Fundazioaren eta domeinuaren nondik norakoak. Sustatze eta zabaltze lanean dabil Oliden.

- Zer da PuntuEUS Fundazioa?

PuntuEUS fundazio pribatu bat da, euskararen eta euskal kulturaren domeinua kudeatzea helburu izan duena. PuntuEUS fundazioak ez du domeinu-izenik zuzenean saltzen. Domeinu-izenak erregistratzaileen bidez erosten dira. Fundazioak erregistratzaileekin hitzarmenak ditu, eta bezeroak egokien ikusten duena aukeratu dezake. Beraz, fundazioak domeinua sustatzen du, informazioa ematen du, zalantzak argitzen ditu, baina ez du domeinu-izenik saltzen.

> “2014ko abenduaz geroztik dago domeinua edonorentzat eskura”

- Zein pauso eman behar izan zituen Fundazioak .eus domeinua erabiltzaileen esku jarri arte?

2007an abiatu zen proiektua, kataluniarrek .cat domeinua eskuratu zutenean. Iratxe Esnaolaren ekimenez sortu zen ideia. Prozesua luzea izan da, ICANN elkartearekin negoziazio luzeak egin behar izan direlako. ICANN elkartea Interneteko notarioa dela esan genezake. Interneteko izenak eta zenbakiak kudeatzen ditu. Beraz, hark onartzen ditu domeinuak. 2013ko ekainean iritsi zen onarpena. Hasieran aitzindarien fase bat egon zen, domeinua edukitzen lehenak izan nahi zuten erakunde, elkarte eta enpresekin. 2014ko abenduaz geroztik dago edonorentzat eskura. Salbuespen bat dago: udalerrien izenak blokeatuta daude, oraingoz udalek bakarrik har ditzaten.

- Zenbat web gune dira gaur egun .eus domeinua dutenak? Aurreikuspenak bete al dituzue?

3.400 web gune dira. Geografiaren aldetik begiratuta, gehienak Euskal Herrikoak dira, noski, baina diasporakoak ere badaude. Euskal Herriari dagokionez, gipuzkoarrak dira gehienak. Euskararen presentzia kontuan hartuta logikoa da. Bizkaia eta Araba hazten ari dira; Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, zabalkundea areagotu behar dugu. Sektoreei erreparatuta, hasieran erakunde publikoak izan ziren gehienak. Orain, berriz, enpresen arloan du hazkunde handiena. Kopuruari dagokion aurreikuspenik ez genuen egin, ez baitakigu zenbat web gune dauden guztira Euskal Herrian. Abenduan aurkeztuko dugun Beha-

> “Euskarazko edukia sarean babesten duen txapela da .eus”

tokiari esker jakingo dugu hori.

- Balio erantsia ematen du .eus domeinuak?

Euskara eta euskal kultura ordezkatzen duen domeinua da. .com-ek edo .net-ek, adibidez, ez dute ezer adierazten; honek, aldiz, bai. .eus-ek identitate bat ematen du, euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen identitatea. Ez da kontu geografiko bat. Bi dira irizpideak: behintzat edukiaren parte bat euskaraz duten web guneak izan daitezke, edo euskarari edo euskal kulturari buruz hitz egiten dutenak. Esate baterako, erdaraz argitaratzen den egunkari batek .eus domeinua izan dezake, puntualki euskarari eta euskal kulturari buruz idazten badu.

- Zer beste abantaila izan dezake?

Interneteko helbide baten bidez, enpresa, elkartea edo dena delakoa kokatu daiteke. Kanpotik begiratzen gaituztenei dagokienez, oso interesgarria da hori. “Euskadi” edo “Basque Country” markak indartu diren bezala, euskal domeinuak erreferentzia sortzen du. Gainera, Interneten betidanik izan da domeinuak erosten ibiltzen den jendea, gero saltzeko asmoz. Horren aurka babes moduan funtzionatzen du .eus-ek. Google bezalako bilatzaileei dagokienez, posizionatzen lagundu dezake. Euskarazko edukia sarean babesten duen txapela ere bada .eus, euskara Interneten bildu eta indartzen duena.

- Euskara eta euskal kultura sustatzeko helburuak nolabaiteko konpromisoa eskatzen du erabiltzaileen aldetik.

Hori norberaren gain dago. Guk mezua zabaldu dezakegu, jendea animatu dezakegu, baina azken erabakia ez dago gure esku. .EUS domeinua erabilgarri da edozein web gunerentzat, dendari, enpresa edo elkarterentzat, betiere komunikazioaren zati bat euskaraz egiten badu. Batzuk prezioa dela eta kexatu izan dira. Horiek ulertu behar dute beste domeinu batzuk ez dituen ezaugarriak dituela .eus-ek. Ez da Interneteko domeinu hutsa. Orain 50 euroan dago, beste domeinu batzuk baino garestiago. Normala da, hasieran estali beharreko kostu batzuk daudelako. Dena den, beste domeinuak bezala, denborarekin merketu egingo dira.

Bigarren edizioa izango du Artefaktok



Artefakto proiektuaren lehen esperientziaren balorazioa egin ondoren, 2.0 edizioa aurkeztu dute Santiago auzoan. Espazio publikoa dinamizatzeko asmoz, arkitektura lehiaketa martxan jarri zuten 2013an. Euskal Jai pilotalekuaren atzean dagoen baratzea izan zen haren emaitza. Artefakto 2.0k, aldiz Fermin Calbeton kalean dauden panelak apaintzea izango du helburu. Lorategi bertikala izango da obra aurrera eramango duen artistak jorratu beharreko gaia.

Duela bi urte aurkeztu zuen Santiago auzoko diseinatzaile, argazkilari eta arkitekto talde batek Artefakto proiektua. Santiagoko Bizilagunen Elkartearekin eta Udalarekin harremanetan jarri ondoren, parte-hartze prozesu bati ekin zioten, auzoko espazio publikoa dinamizatzeko ideien bila. Bizilagunen artean, asteburu bakarrean eta birziklatutako materialekin, auzoari balio erantsia emango zion eraikuntza xume bat egitea zen asmoa. Aurkeztutako berrogeita hamar egitasmoen artean, hamar onenak aukeratu zituzten bizilagunek, bozketa bidez. Horiekin, arkitektura lehiaketa jarri zuten martxan. Adituen epaimahaiak "Santiagoko baratzea" proiektua hautatu zuen. Euskal Jai pilotalekuaren atzean eraiki zuten, 2013ko udan.

> "Jendea baratzean sartzen da, eta produktuak zapaltzen ditu"
> **Egoitz Sanchez, ikaslea**

Baratzea kudeatzeko, Santiagoko bizilagunak aritu ziren lanean hasieran. Jasotako uzta *Berpiztu* GKEak erabiltzen zuen, asteartero Bizilagunen Elkartean egiten duen elikagaien banaketan. 2014ko urritik aurrera, kanalaren beste aldean dagoen Dunboa eskolako haurrek hartu zuten baratzea zaintzeko ardura. Baratze Eskola da orain. "Ia asteartero joaten gara baratzea zaintzera eta produktuak jasotzera. Belar txarrak kentzen eta haziak landatzen ikasi dugu", azaldu du Milena Nicolaescu ikasleak. Jasotako uztarekin zozketak egiten dituzte, ikasleek produktuak etxera eraman ahal izan ditzaten. Arazoren bat edo beste izan dutela onartu du Egoitz Sanchez ikasleak: "Jendea baratzean sartzen da, eta produktuak zapaltzen ditu. Kartelak egin ditugu, errespetua eskatzeko".

Helburu zehatza bigarren edizioan

Bere bidea egin du, beraz, Artefakto proiektuaren lehen edizioaren fruituak. Orain bigarrena aurkeztu dute. Artefakto 2.0 zehatzagoa da, ekintza eremuaren eta moduaren aldetik. Fermin Calbeton kaleko horman dauden bi panelak apaintzea izango du helburu. Kontzertuetako, zirkuetako edo beste kultur ekitaldietako kartelak jartzeko panelak dira. "Kasu honetan, Fermin Calbeton kaleko bizilagunei eta inguruko merkatariei eskatu diegu paneletarako gaiak proposatzeko", argitu du Josu Laguardia arkitektoak. Aukeratu duten gaia lorategi bertikalarena da. Lehiaketa martxan jarri dute, interesa duten artistek proposamenak egin ditzaten. Din A3 formatuan aurkeztu beharko dute proiektua, orrialde bateko memoria batekin batera. Ortolaiz argazkilaritza estudioan entrega dezakete (Tadeo Murgia, 1, 1.B), maiatzaren 22a baino lehen.

Ekainaren 21ean burutuko du obra aukeratutako artistak. Hamar egun lehenago egingo du hautaketa epaimahaiak. Kaleko bizilagun edo merkatariren batek, talde antolatzaileko norbaitek, EHUko irakasle batek eta Irungo artista batek osatuko dute epaimahaia. "Egun horretarako, panelak garbi eta prest utziko ditugu", baieztatu du Arantxa Etxebeste diseinatzaileak.

> "Lanak izan dezakeen bilakaera ikustea interesatzen zaigu"
> **Arantxa Etxebeste, diseinatzailea**

Fermin Calbeton kaleko horma pribatua da, eta jabeekin harremanetan jarri direla adierazi du Josu Laguardiak: "Baimena eman digute. Udalak ere badu proiektuaren berri". Baratzeak ez bezala, panelek ez dute mantentze lanik beharko. "Obra kalean gelditu da. Hondatzen edo aldatzen bada ere, berdin du. Lanak izan dezakeen bilakaera ikustea interesatzen zaigu", aipatu du Arantxa Etxebestek. Hiriko paisaiaren parte bilakatuko da Artefakto 2.0ren emaitza.

Lehia bizia izan da Bidasoa Itzulian

Steven Calderónen izena apunta dezake txirrindularitzaren zaleak. Gomur-Liebana taldeko kolonbiarra lider sendoa izan da 43. Bidasoa Itzulian. Lehen etapa irabazi, eta maillot horiari eutsi dio amaierara arte. Lider sendoa izan da, eta indarra, ausardia eta sufritzeko ahalmena erakutsi ditu. Hurrengo urtean maila profesionalean arituko dela ziurta daiteke gehiegi arriskatu gabe. Sailkapenean atzetik izan dituen Masek, Rosonek eta Amezquetak ere, besteak beste, bidea zabalik dute.

Maila handiko lasterketa izan zen, beste behin ere, Bidasoa Itzulia. Azken helmugara arte, ez zuen emozio izpirik galdu. Dena den, ez zen azken uneko ezustekorik izan. Steven Calderón kolonbiarrak lehen etapan jantzi zuen liderraren maillot horia, eta ez zuen berriro erantzi. Itzuliak 23 urtez azpikoen egutegian duen garrantzia agerian geratu zen lehen saioan. Abiadura eta tentsio handiko etapa izan zen. Azken txanpari ekin aurretik, hogei txirrindulariko taldea erori egin zen, Caja Rural taldeko Jonathan Lastra faboritoa izan zen kaltetuena. Igantziko IrriSarri Land parkera iristeko azken malda gogorretan, tropela erabat hautsi zen. Indartsuenen taldean, Steven Calderón izan zen nagusi. Segundo bateko aldea lortu zuen helmugan, eta errenta horri eusteko lanean aritu zen hurrengo egunetan.

Errusiarren eguna izan zen bigarrena. Lokosphinx taldeko bi txirrindulari izan ziren lehenak Hondarribiko Harresilandan. Dimitry Strakhovek lortu zuen garaipena, eguneko ihesaldia amaierara arte eraman ondoren. Gaintxurizketan gora atzean utzi zituen Strakhovek iheskideak, eta bakarrik ekin zion Jaizkibel mendatearen igoerari. Indartsu ibili zen maldan gora, eta hogeita bi segundoko aldearekin sartu zen Hondarribiko helmugan. Zhuralev taldekidek lortu zuen bigarren postua. Hirugarren etapa Bidasoa eskualdetik kanpo ibili zen. Orion izan zituen irteera eta helmuga. Specialized-Fundación Alberto Contador taldeko Enric Masek irabazi zuen etapa, eguneko onenen multzoan sprinta irabazita. Steven Calderónek arazorik gabe eutsi zion lidergoari, eta indarra erakutsi zuen gainera Aiako malda gogorrean.

Azken etapak erabaki zuen, ohi bezala, Bidasoa Itzulia. Sailkanepenko lehen lau txirrindulariak segundo bakarreko tartean zeuden. Hortaz, arriskatzeko beharra zegoen. Ikuskizuna Erlaitz mendatean hasi zen. Calderónek berak egin zuen lehen saioa, baina ez zuen arrakastarik izan, eta atrebentzia ordainarazi zioten aurkariek. Mas, Roson eta Amezqueta saiatu ziren erasoan. Calderonek denei erantzun zien, azken kilometro erdian leher egin zuen arte. Hogeita bat segundo galdu zituen gailurrean bere hiru arerio nagusiekiko. Hala ere, ez zuen bururik galdu. Atzetik zetorren taldean babesa bilatu zuen. Etapa irabazteko ahaleginean, Colpack talde italiarrak gogor lan egin zuen, ihes egindako hirukoa harrapatu arte. Alvaro Truebak asmatu zuen ihes egiteko azken saioaetan, eta bakarrik iritsi zen Kolon pasealekuko helmugara. Gainerakoak batera iritsi ziren, Calderónen mesedean.

Bidasoaren argiak eta itzalak

Irribarretsu jaitsi zen kolonbiarra podiumetik, lortutakoaren esanahiaz jabetuta. Azken etapan asko sufritu zuela onartu zuen: “Zangoekin baino gehiago, bihotzarekin eutsi diot. Buruarekin ere bai, fun-tsezkoa baita txirrindularitzan”. Bidasoa Itzulia irabazten duen txirrindulariak profesionaletarako jauzia ziurtatua izaten du. “Ireki zaidan atea gurutzatu behar dut. Amets hori egia bilakatzeko egin dut lan”, adierazi zuen aurtengo irabazleak. Arrazoi berarengatik, burumakur zegoen Enric Mas, bigarren sailkatua: “Saiatu naiz, baina ezin izan dut helburua lortu. Borrokan jarraitu beharko dut”. Debabarrena taldeko Urki Rojo izan da Bidasoa Itzuliko irundar bakarra. Sailkapeneko 108. postuan amaitu zuen, egindako lanarekin konforme: “Nire helburua lau etapak amaitzea zen. Egunez egun hobera egin dut”.

> “Zangoekin baino gehiago, bihotzarekin eutsi diot”
> **Steven Calderón**

Txirrindulariek ez ezik, antolatzaileek ere atseden hartu zuten 2015eko Bidasoa Itzulia amaituta. Kirol arloari dagokionez, balorazio positiboa egin zuen Antxon Mendia zuzendariak: “Hogei talde ekarri ditugu, sei atzerritarrak, eta denak oso lehiakorrak. Lasterketako lehen lau sailkatuen arteko alde txikia horren adierazle argia da”. Antolakuntzari dagokionez, berriz, kritikarako gaitasuna erakutsi zuen Mendiak. Segurtasunean hobetu beharra daukatela onartu zuen. “Ez da erraza, biztanle eta trafiko handiko hiriguneak zeharkatzen ditugulako. Gure arazorik handiena da”, azaldu zuen Antxon Mendiak.

Zailtasunak zailtasun, 23 urtez azpiko txirrindularitzan erreferente izaten jarraitzen du Bidasoa Itzuliak.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Mendi lasterketak hartu ditu Aiako Harriak

Duela bost urte antolatu zuen Erlaitz elkarteak Irungo lehen mendi lasterketa. Erlaitz-Aiako Harria Mendi Maratoi Erdiaren arrakasta ikusita, egitaraua zabaltzea erabaki zuten geroago. Aurten hirugarren aldiz antolatu dute Sky Games asteburua, maiatzaren 9an eta 10ean. Larunbatean kilometro erdi bertikala egin zuten Endarlatsatik Pagogañara. Arratsaldean, korrikalarien azoka jarri zuten Ola Sagardotegian. Igandean, berriz, Erlaitz-Aiako Harria Mendi Maratoi Erdia egon zen jokoan.

Kilometro erdi bertikala lasterketa labur baina eskakizun handikoa da. 2,5 km-ko ibilbidean, 500 metroko desnibela gainditu behar izaten dute parte-hartzaileek. Horrek esan nahi du bataz bestekoa %25ekoa dela. %37ko desnibela duten maldak ere badaude Endarlatsatik Pagogañara doan igoeran. Maiatzaren 9an, arratsaldeko 15:30ean irten ziren parte-hartzaileak. Dabid García Gil izan zen azkarrena gizonezkoetan, 19':28''-ko markarekin. Ion Rivero eta Ibai Etxeberria izan zituen lagun podiumean. Jose Carlos Lopez Rekarte izan zen lehen irundarra. Emakumeen artean, Leire Martínez iritsi zen lehen postuan helmugara. Ana Reina izan zen azkarrena irundarren artean. Guztira, hogeita sei izan ziren kilometro erdi bertikalari aurre egin zioten ausartak.

Igandean, berriz, 350 parte-hartzaile izan ziren Erlaitz-Aiako Harria Mendi Maratoi Erdian. Mendi lasterketen artean izena hartzen ari da Irungo proba. Aurten Euskadiko Kopako lehen jardunaldia izan da. Goizeko 9:00etan irten ziren parte-hartzaileak Ola Sagardotegiko aparkalekutik, Saroia baserrira doan bidea hartzeko. 21 km-ko ibilbidea osatu behar izan zuten, 2.700 m-ko desnibel metatua gaindituta. Aurreko urteetan ez bezala, eguraldi eguzkitsua izan zuten korrikalariek. Beroari aurre egin behar izan zioten. Ismail Razgak, baina, ez zuen ia nabaritu ere egin. Marokon hamabost egunez entrenatu ondoren iritsi zen Aiako Harrira. Faboritoen zerrendan agertzen zen Gráficas Sestao taldeko korrikalaria, Euskal Herriko Txapelketan hirugarren izan ondoren.

"Nire erritmoa hartzea erabaki dut hasieratik"

Alizia Olazabal

Etxeko korrikalariak podiumetan

Hasieratik hartu zuen Razgak lasterketaren burua, abiadura bizian. Pagogaña inguruan 20 segunduko aldea zuen. Aiako Harriko lehen tontorrera igotzerakoan, minutu batera handitu zuen aldea. Abantaila erosoarekin sartu zen helmugan, 1h:48''-ko denborarekin. "Errekorra egitera irten naiz, baina azken jaitsiera oso teknikoa da, eta ez dut arriskatu nahi izan", azaldu zuen irabazleak. Hiru minutu geroago iritsi zen Endika Gartzia. Lasarteoriatarra da, baina Irungo *Mugalariak* taldearekin dabil korrika. Ismail Razgak hasieratik ihes egin zuenez, Asier Aguadorekin aritu zen hasieran. Hobera egin zuen ondoren, baina ez zen gai izan Razga harrapatzeko. Bost edizioetatik lautan parte hartu du Gartziak: "Lasterketa polita da. Korrika egin ahal izateko zatiak daude, baina aldapa gogorrak eta jaitsiera teknikoak ere bai". Barakaldoko Asier Aguado igo zen podiumeko hirugarren tokira.

Emakumeen artean, etxeko korrikalari bat izan zen azkarrena, Alizia Olazabal irundarra, 2h:13''-ko denborarekin. Erlaitz-Aiako Harrian podiumera igotakoa zen Olazabal. Baina sekula ez lehen koskara. Garaipena pozgarria izan zen irundarrarentzat. Sendo aritu zen: "Sentsazio oso onak izan ditut azken boladan. Horregatik, nire erritmoa hartzea erabaki dut hasieratik. Ni ondo nindoan, baina ez nekien atzekoek zein martxa zeramaten". Bere entrenamendu eremua izaten da Aiako Harria, eta ibilbidea ezagutzeak abantaila txiki bat ematen duela onartu zuen Olazabalek: "Koska okerrenak non dauden, edo non ibili behar den adi. Guzti hori ondo nekien". Maria Zorroza izan zen bigarren, eta Montse Vazquez hirugarren. Erlaitz Mendi Elkarteko boluntarioen lanarekin amaitu zen mendi lasterketen asteburua. Garbi utzi zuten Aiako Harria, ehunka korrikalari inguruan ibili izan ez balira bezala.

Belaskoenea HH

BELASKOENEA ESKOLAKO 5 URTEKO GELAKOAK ZIENTZIAREN MUNDUAN MURGILDU GARA ETA AIREARI BURUZKO ESPERIMENTUAK EGIN DITUGU.

ZIENTZIAK ERE DIBERTIGARRIAK DIRA!!!!

ESPERIMENTU ETA JOLASEN BIDEZ AIREAREN PROPIETATEAK IKASI DITUGU.

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Lehen atala

Jeloskor nago! Inbidia dut!

Nola bideratu sentitzen dudan hau guztia?

Jeloskortasuna eta Inbidia emozio desatseginak izan arren, badute gizakia bere ingurunera moldatzeko funtzioa. Elkarrekin joan badaitezke ere, ezberdintzen ikastea garrantzitsua da oso, bata edo bestea sentitzeak funtzio eta biderapen ezberdina dutelako.

Gure gizartean emozio hauek oso gaizki ikusiak izan dira, baina gizarte eredu honek pertsonen arteko konparaketa jarraia eta gizarte-klase ezberdintasuna ere bideratzen du. Nola ez gara, bada, jelos edo bekaizti sentituko? Emozio negatibotzat ditugu eta oso gaizki ikusiak daudenez, berauen biderapen inteligente edo adimentsua egitea zaila da oso. Ez gaituzte hezten emozio hauek inteligenteki bideratzeko, ez ditugu emozio hauen kontzientzia, onarpena eta ulermena gidatzen. Argi dago, ordea, ahal den neurrian inteligenteki bideratzea funtsezkoa dela. Beraz, azter dezagun haren funtzio eta biderapena:

- Jeloskor sentitzen garenean pertsona zehatz batengandik sentitzen gara jelos, pertsona horrek maite dugun norbait kenduko digula sentiarazten digu eta. Hau da, jelos sentitzean maite dugun pertsona galtzeko beldur sentimendua indartsuki pizten da, gure burua edo lekua kolokan dagoela iruditzen zaigularik. Adibidez:

1. Adibidea: Nire mutil-lagunak neska bati maitasunez begiratzen badio, neska horren jelos izan naiteke.

2. Adibidea: Gurasook eta familia kideak beste alabari kasurik egin gabe haur jaio berriari begira denbora luzez badaude, gure alaba jeloskor senti daiteke.

JELOSIAREN BIDERAPEN NEGATIBOA

Jelos gara eta ondorioz min eman nahi diogu kolokan ipini gaituen pertsonari; irainduz, gaizki pentsatuz, joz…
Hasieran ongi sentitzen bagara ere, gero ez, jelosia ez baita positiboki bideratua izan.

Bigarrena: Jelos sentitzearen kontzientzia hartu, onartu eta ulertuz: Zer da sentitzen dudan hau? Jelos naiz nire lekua kolokan sentitzen dudalako.

Lehen adibidean: Amaia primeran pasatzen ari da. Ai! Egia da, azken bolada honetan ez naiz Amaiarekin egon. Jo! Harekin egon nahi dudala ohartu naiz, oso jatorra da eta ongi sentiarazten nau. Deituko diot, hori da, deitu behar diot!

Bigarren adibidean: Haurrak ezin du bere jelosiaren kontzientzia hartu; baina heldua da bere sentimendua ulertu eta onartu behar duena, bere lekua emanez.

- Inbidia sentitzean, aldiz, pertsona batek duen ezaugarri batengatik gaude bekaizti.

✓ Lagun bat jendearen aurrean bere ideiak argi eta lasaitasunez azaltzen ari denean, lagun horren ezaugarri horretaz gaude bekaizti.

✓ Haur batek beste baten marrazkia ikustean inbidia sentitzen du, bestearena bezain polita egiteko gai sentitzen ez delako.

Inbidiaren inguruan ere bi biderapen egin ditzakegu:

Lehena: Inbidia sentitu dugun pertsona hori deuseztatu: ez da hain polita egin duen hori, ez da hain ona, eta gainera ziur aski beste norbaitek egin edo lagundu dio… Bekaizkeria da hemen nagusi, gure hizkuntza garatuak dioen bezala, emozioa izugarri mingarri bilakatzen da.

Bigarrena: Beste pertsonaz inbidia dugunean, zertaz garen bekaitz ohartu eta lan egin, berak duen hori guk lortzeko. Beti ez dugu lortuko, baina lortzen saiatu garela jakiteak gure bidean positibo gaudela biziarazten gaitu.

✓ Beñaten Inbidia dugu saskibaloian ona delako. Biderapen positiboan, kontzientzia hartzen dugu gure emozioa ulertu eta onartuz: “Inbidiatan nago, nik ez baitakit saskibaloian ongi jokatzen. Frustrazioa onar dezaket eta kitto, edo lan egin dezaket ezaugarri hori lortzeko. Bai? Eta ostiralak libre ditudanez ordubete entrenatzeari ekingo banio? Ideia ona!”

Beno, ideia nagusiak ulertu izana espero dut. Datorren hilabetean haurren jelosia eta inbidia jorratzen jarraituko dugu. Nola lagundu emozio hauek era adimentsu batean bideratzen? Zer egin haur berri bat datorrenean? Zergatik sentitzen dira anaia-arrebak jelos elkarren artean?

Ondo izan eta gogora ezazue zenbat ezaugarri positibo dituzuen, denok gara zoragarri gure ezberdintasunean. Ez ahantzi, ezberdintasunak aberasten gaitu!!!!!

Mapi Urresti Ortiz
KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

El Pilar Ikastetxea

Ane García - Carla García DBH 2

- ESKULANAK -



ESKULANAK EGITEN:

1. Hasieran, kutxaren alboetan, 2 cm-tara markak egingo ditugu. Ondoren, egin ditugun markatxo guztiak erregelarekin marra bat eginez lotuko ditugu.
2. Orain, puntzoiekin egindako marratik moztuko dugu, eta horrela, zulo bat geratuko zaigu kutxaren tapan.
3. Kutxaren piezaren goiko aldean, 1 cm-ko zabalera duen marra egingo dugu, kutxaren albo batetik bestera, hau etzanda dagoela.
4. Ondorengo pausuan, taparen alboetan kola zuria botako dugu, eta kutxaren beste atalarekin elkartuko dugu.
5. Kutxa dekoratuko dugu, horren inguruan kola txuria botaz eta kolorezko kartulinak inguruan itsatsiz.
6. Kutxan lehenago egindako zuloaren taminako kartulina bat dekoratuko dugu, eta hau izango da antzerkiko eszenatokia.
7. Bukatzeko, komuneko tutuaren eta ping-pong pilaten laguntzaz txontxongiloak egingo ditugu, pilota tutuaren gainean itsatsiz.

NOLA EZ JASO BERRIRO FACEBOOKEN JOKOETAN PARTE HARTZEKO GONBITERIK

Facebook erabiltzeak dituen gaitzen artean, badago zuen jakinarazpenetan jokoetan parte hartzeko gonbidapenak jasotzearena. Ezagunak izango zaizkizue: Granja, Candy Crush, Diamonds Solitaire...

Batzuk haserretu egiten dira, eta bidaltzen dizkieten lagun inozo horiei buruz gaizki esaka dabiltza. Dena den, aitortu beharra dago gehien-gehienek ez dakitela inozokeria hori egiten ari direla ere. Aplikazio hauek nahasgarri samarrak izaten dira, eta ematen dizkiegun baimenen artean egoten da gure izenean mezuak bidaltzearena.

Badaude bi formula nagusi ditxosozko gonbidapen horiek ez jasotzeko. Hona hemen:

1) Horiek bidaltzeko grina duten lagunak blokea ditzakezu. Ez da blokeo orokor bat, gonbidapenena baizik; hortaz, haien jardueren gainerakoa ikusten jarraituko duzu, bai eta haiek zurea ere.

Hartara, goian eskuinean dagoen gezira jo dezakezu, eta hautatu Ezarpenak > Blokeatze aukerak> Gonbidapenak blokeatu, eta hor gonbidapen gogaikarriak bidaltzen dizkizuna blokeatu.

Nahi adina izen jarri, banan-banan idatzita. Gogora ezazu ezarpena gordetzea bukatutakoan.

2) Ezarpena bera blokeatzea. Munduko globoan klikatu eta zabaltzen den panelean jakinarazpena jasotzean, jakinarazpenean bertan bi kontrol-botoi ikusiko dituzu eskuinaldean: irakurritzat markatzea ahalbidetzen dizun borobila, eta desaktibatzeko aukera ematen dizun X bat. X horixe sakatuta, Facebookek galdetuko digu etorkizunean ezarpen horren jakinarazpenak desaktibatu nahi ote dugun. Markatzen badugu, ez dugu joko horren gonbidapen gehiagorik jasoko.

Badakigu ez dela hutsik gabeko konponbidea, baina behinik behin modako jokoak eta bidaltzaile errepikatzaileak gainetik kenduko ditugu.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Kulto Kultibo:

“Erantzukizun bat dugula konturatu gara”

Arrapaladan etorri zen dena Kulto Kultibo rap/reggae taldearen hasieran: lehen kontzertua, maketa, bidaiak, lehen diskoa. Hasi berrien ilusioarekin egin zuten aurrera, ziztu bizian. Gaur egun, berriz, taldeak bost urte bete dituenean, pausoak tentuz eta sendo ematen dituzte. Hondarribiko garaje batean, grabazio estudio ere baden entsegu lokal txukuna muntatu dute. Jo eta ke ari dira lanean, hirugarren lan diskografikoa prestatzen. Udarako kontzertu zerrenda luzea osatzen ari dira. Ekainaren 23an hasiera emango diote, San Martzialetako egitarauaren baitan eskainiko dutenarekin.

- 2001. urtea nabarmentzen duzue zeuen biografietan. Zer aldatu zen orduan?

PECA: Hip hopak Estatuan eztanda egin zuen. Kutsatu gintuen. Arropa erosten hasi ginen eta kontzertuetara joaten. Estatuko rap talde onenek Irungo Tunk aretoan jotzen zuten. Edo Donostian, bestela. Estatu mailan hip hopak izan duen boladarik onenak iragan dira. Egun, mugimendu hori itzali da.

SAMU: Irunen lehen hip hop denda ireki zuten. Arropa, sprayak, eta biniloak saltzen zituzten, AEBtik inportatuta. Ume mokoak ginen arren, jada hasi ginen eskolako komunetan sinatzen, edo rap musika entzuten. Gure lehen rap bertsoak mugikorrekin grabatu genituen. Break dance dantzan ibili ginen, eta graffiti munduan ere bai. Giro horretan ezagutu genuen elkar.

- Taldearen hasiera bitxia da. Modu inprobisatuan bat egin zenuten, kontzertu baterako.

PECA: Aspalditik ezagutzen genuen elkar. Kontua da niri Bilboko Fever aretoan jotzeko deitu zidatela. Talde batekin ari nintzen orduan; baina, lana zela eta, taldekideek ezin izan zuten etorri. Orduan Setari deitu nion, DJ moduan zebilelako.

SETA: Nirekin Samu zebilen orduan abesten, eta ezinbesteko baldintza zen berak ere parte hartzea. Aimar nire koinatua zen orduan, eta lokal bat zeukan Pio XIIn, rock talde batean zebilelako. Lokal horretan prestatu genuen kontzertua, zazpi eguneko epe laburrean. Hortik lehen maketaren izena.

- Zer sentitu zenuten kontzertu hartan, taldea osatu behar zenutela erabakitzeko?

SAMU: Ordura arte ez genuen sekula agertoki batean rapeatu. Hortaz, hasiera hura ikaragarria izan zen. Live Zion Sound festibala zen, eta lepo zegoen Fever aretoa. Gure artean konexio berezia sentitu genuen. Taldearen izena lokalean sortu zen.

PECA: Ez genuen eztabaidatu taldea sortuko genuen edo ez. Lagunek animatu gintuzten. Aimarrek lauzpabost abesti grabatu zizkigun hala-moduz, eta jendeari ikaragarri gustatu zitzaizkion. Bost urte pasa dira jada. Orain grabazio estudioa dugu, kontzertu pila bat eman ditugu, Estatu osoko lekuak eta jendea ezagutu ditugu.

- “7 días” eta “Ahora o nunca” lanak argitaratu dituzue. Nola azalduko zenukete bakoitza?

PECA: “7 dias” ia nahi gabe atera zen. “Ahora o nunca” barruan generaman amorrua husteko modua izan zen. Hirugarren diskoa, berriz, ondo pentsatutako lana izango da. 2015aren amaieran atera nahi genuke.

SAMU: “Ahora o nunca”-n hamazazpi abesti grabatu genituen, lagun askoren kolaborazioekin. Gure lehen hiru baseak sortu genituen. Hurrengo diskoan, instrumental guztiak guk egindakoak izango dira. Lan osoagoa izango da, landuagoa.

- Bilakaera handia nabari da disko batetik bestera. Hirugarrenean ere hala izango da?

SAMU: Bilakaera normala da, serio ari garelako lanean. Gauza asko utzi ditugu alde batera: lagunen lokala, adibidez. Lanetik atera eta estudiora etortzen gara. Hala ere, denen babesa daukagu, familiarena ere bai. Hori eskertzekoa da.

SETA: Kanpora joaten garenean, jendea ezagutzen eta ikasten saiatzen gara beti. Bidaia guztiak guk geuk ordaintzen ditugu, baina momentuz ez zaigu inporta. Epe luzerako inbertsio moduan ikusten dugu. Ordaindu izan digutenean, ekipoan gastatu dugu dirua.

- Abestien hitzei dagokienez ere hobetu duzue?

PECA: Errima hobeak lortzen ditugu, hiztegi aberatsagoa dugu. Idazten duzunean entrenatzen ari zara, eta horrela hobera egiten duzu. Lehen, protesta gordina egiten genuen; orain abestiak serioagoak dira, helduagoak.

SAMU: Txikitatik freestyle rapean ere ibilli izan gara, eta ariketa horrek asko laguntzen du. Rap ona entzuten saiatzen gara, ahalik eta gehien ikasteko. Canserbero, Bencina, Latinoamerikako rap-a gustatzen zaigu. Txilen gogor jotzen ari da, adibidez.

SETA: Denborarekin, erantzukizun bat dugula konturatu gara. Badakigu sortzen dugun hori jendeak entzungo duela, eta batzuentzat erreferentzia izan daitekeela. Gainera, betiko geldituko da grabatuta.

Ekintzak

Scoot erakusketa Irungo skate parkean.

Noiz? Maiatzak 23

Ordua? 16:00etan

Lekua? Irungo Skate Parkean

Prezioa? Dohainik.

Lehiaketak

Abian da GOazen Boisera, blogari gazteentzako lehiaketa

Estatu Batuetako euskal diaspora ezagutu nahi zenuke uda honetan?

GOazen Boisera lehiaketak Boiseko Jaialdia ezagutu eta bertan gertatzen denaren berri emateko prest dauden bi gazte bilatzen ditu.

Epea? Lanak maiatzaren 5etik ekainaren 4ra jasoko dira, bi egun horiek barne.

Zein da saria? Astebeteko bidaia Estatu Batuetako Boise hirira, joan-etorria hegazkinez, ostatua, bidaiak, otorduetako gastuak eta bidaia-asegurua.

Zer egin behar da? Idazlan bat (kronika, erreportajea edo fikzioa) edo bideo bat. Hauetako gai bat izan behar da: Gazteak eta Ikasketak, Gazteak eta Lana, Gazteak eta Etxebizitza, edo aurreko hiruren edozein konbinaketa.

Gazteak Youtuberrak lehiaketa

ETB1-eko 'Gu ta Gutarrak' saioak lehiaketan parte hartuko duten bideo guztiak eskainiko ditu, eta hileroko bideo onenak 500 euroko saria jasoko du. Urte amaieran, YouTubeko euskarazko kanal onena sarituko du.

Epea? Hilero, abendura arte.

Oinarriak?
www.eitb.eus/eu/gaztea/youtuberrak/oinarriak/

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

San Martzial jaietako kontzertuak

Ekainak 20: 22:30ean, MusikIrun V. Maketa Lehiaketaren finala.

Ekainak 21: Skola Musik-en kontzertua, Musikaren Nazioarteko Eguna dela eta, 17:00etan Urdanibia plazan.

Ekainak 23: 22:30ean, Kulto Kultibo eta Esne Beltza Urdanibia plazan.

Ekainak 27: Calle Beat (22:30ean) eta Remember Queen (gauerdian), Urdanibia plazan.

Ekainak 28: La Dona Dea (22:30ean) eta Loquillo (00:30ean), Urdanibia plazan.

Ekainak 28: Jamaica Show orkestraren emanaldia (23:30). San Juan Plazan.

Ekainak 30: Mariachis Internacional (23:00etan)

Ekainak 30: Disko festa (22:30etik 02:30era) Urdanibia plazan. DJ Olga Grande (40 principales) eta Luis Dj (Long Play) izango dira musika jarriko dutenak. Hiru gogo (2 neska eta mutil bat) egongo dira.

Maiatzak 16

Zer? Rockestrako kontzertua

Non? Kabigorrin

Ordua? 23:30tan

Prezioa? Doako sarrera

Maiatzak 17

Zer? Erro taldeak Vivaldi eta Bachen lanak, besteak beste, eskainiko ditu.

Non? Amaia KZn

Ordua? 12:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Maiatzak 19 eta 26

Zer? Bertso saioa

Non? Amaia KZn

Ordua? 18:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Maiatzak 24

Zer? Jacky Morel Kontzertuan Irun, Baiona, Iruñea eta Donostiako Kontserbatorioko oboe- eta fagot-joleek parte hartuko dute, ikasle nahiz irakasle.

Non? Zabaltza plazan

Ordua? 12:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Maiatzak 24

Zer? Merkatu birziklagarrian arropa, osagarriak, bigarren eskukoak, bildumazaletasuna, etab. aurkituko dira.

Non? Santiago kalean

Ordua? 11:00etatik 19:00etara

Prezioa? Doako sarrera

Maiatzak 26

Zer? Nagusilan abesbatzaren emanaldia.

Non? Caser Anakan

Ordua? 18:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Azoka solidarioa (Big Beñat)

Estebenea jatetxeak eta Cervecería Boulevardek Udaberriko Garagardo Azoka ospatuko dute. Aurten jomuga solidario batekin bat egingo dute, irabazitakoaren %50 Big Beñat egitasmoari emango diote.

Beñat 8 urteko Getxoko ume bat da. Birike-tako atrepsia + civ gaixotasuna dauka. Gaur egun Bostonen senda daiteke, baina ebakuntzak 140.000 euro balio du.

Drunken Bros eta Marbi garagardo berezi bat egin dute dirua jasotzeko eta, esan bezala, Estebeneak eta Cervecería Boulevardek egitasmoa babestuko dute.

Noiz? Maiatzaren 14tik 17ra.

Larunbatean:

- 17:00etan: Artisau garagardo tailerra Estebenea jatetxean.
- 18:00etan: Berri Txarrak taldearen garagardoa aurkeztuko dute.

Igandean:

-17:00etan: Artisau garagardo tailerra Estebenea jatetxean "homebrewers" aurreratuentzat.

Izena emateko eta informazioa jasotzeko:
Estebenea: 943 621 962
Cervecería Boulevard: 943 536 918



ARGOIAK Elkartearenak

LINIBE hari hirukotearen emanaldia

Noiz? Maiatzak 20

Ordua? 17:00etan.

Non? Bertsolari Uztapide, 6.

Prezioa? Doako sarrera

Sukaldaritza tailerra.

Alberto Liebana ZURA jatetxeko sukaldariak sukaldaritza errezeta batzuk prestatuko ditu.

Noiz? Maiatzak 27

Ordua? 17:00etan.

Non? Bertsolari Uztapide, 6.

Prezioa? Doako sarrera

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 25etik
ekainaren 5era
biak barne

MATRIKULA
Uztailaren 16tik 21era
biak barne

ATE IREKIAK

Erdi Maila: maiatzak 18
Goi Maila: maiatzak 19
18:30ean

IDASOA

Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
Fax. 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org

www.fpbidasoa.org

2015-2016 IKASTURTEA
ZIKLO ESKAINTZA OSOA
EGUNEZ
Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

*** Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK